

Andoaingo Udalak Martxoaren 8ko aurtengo egitarau zabala aurkeztu du gaur

- Martxoaren 1etik 14ra bitarteko programazioak herritarren eta Udalaren ekimenak uztartuko ditu.
- Nerea Uralde izan da aurtengo kartel lehiaketako irabazlea.

Martxoaren 8a egutegian nabarmendua dugun eguna da, eta Andoaingo Udalak urtero berriazko programazioa antolatzen du Emakumeen Nazioarteko Egunaren baitan. Gaurko agerraldian aurtengo egitarauaren berri eman da, eta, era berean, kartel lehiaketako irabazlearen izena jakinarazi eta saria entregatu da.

Aurtengo kartel lehiaketa Nerea Uraldek irabazi du, eta gaur jaso du dagokion saria. Programazioaren zehaztapenetan sartu aurretik, Andoaingo Udalak azpimarratu nahi izan du Martxoaren 8a orain arte lortutakoa ospatzeko eguna izateaz gain, honaino ekarri gaituen borroka feminista eta borroka hori hauspotu duten feministei aitortza egiteko eguna ere badela. Era berean, egun honek erronkak zehazteko eta horiek gure egiteko baliatzeko balio behar duela nabarmendu da.

Genero-desberdintasun estrukturalaren gorakada bizi dugun garai honetan, bizi baldintza duin eta justuen alde lanean jarraitu behar dela adierazi du Udalak. Horretarako, ezinbestekoa da begirada feminista erdigunean jartzen jarraitzea, kalean zein instituzioetan.

Martxoaren 8ko programazioak herritarren ekimenez bultzatutako jarduerak eta Udalak proposatutakoak uztartzen ditu. Egitaraua martxoaren 1etik 14ra bitarte luzatuko da. Programazioa etxeetara buzoneatuko den arren, zenbait ekimen bereziki azpimarratu nahi izan dira.

Alde batetik, kultura anitzetako afariaren garrantzia nabarmendu da; izan ere, beste espazio batzuk sortzeko bidea eman du, tartean Emakumeen* Etxea diseinatzeko prozesua. Hirugarrenez, Andoaingo kultura anitzetako emakumeak janari goxoaren bueltan elkartuko dira, saretzen eta sinergiak sortzen jarraitzeko.

Bestetik, martxoaren 8an, igandean, Martxoaren 8ko lan taldeak antolatutako “Emakumeen irradaka” ekimena izango da, eta ondoren Mugimendu Feministak deitutako manifestazioa egingo da.

Afaria

Kultura anitzetako afaria martxoaren 6an izango da, 20:30ean, Goikoplazako karpan. Parte-hartzaile bakoitzak bere janaria ekarri beharko du; bertan platerak, edalontziak, mahai-tresnak, ahozapiak, ura, kafea eta te arabiarra egongo dira. Afari ostean, DJ SIWANABAREN kultura anitzetako musikarekin festan jarraitzeko aukera izango da. Aurrez erreserbatuta, hartzaindegi zerbitzua ere eskainiko da.

Afarian izena emateko epea otsailaren 19an irekiko da (12:00etan) eta otsailaren 27ra arte egongo da zabalik (21:00ak arte). Epe horretan, kartelego QR kodearen bidez, telefonoz edo posta elektronikoz eman ahal izango da izena. Udalera bertara hurbildu nahi dutenek Berdintasun Sailean ere eman ahal izango dute izena.

Izena eman ondoren, pultsera morea jaso beharko da, hau izango baita afarirako sarrera eta ikur nagusia. Aurten ere Gazte Lokaleko kideek egindako PULTSERA MOREA izango da erabiliko dena. Pultsera morea otsailaren 19tik 27ra jaso ahal izango da, astelehenetik ostiralera goizez Udaletxeko Berdintasun Sailean, eta astearte eta ostegunetan 12:00etatik 19:00etara Urigainen.

Ekitaldi nagusia

Ekitaldi nagusia martxoaren 8an, igandean, 12:00etan izango da Goikoplazan. “Emakumeen Irradakan” izeneko soka dantzan herriko emakume guztiek parte hartzeko aukera izango dute. Ekitaldirako propio prestatutako koreografia honek emakume anitzen saretzea eta lotura irudikatu nahi ditu. Pauso errazekoa eta denek parte hartzeko modukoa izango da, baina aurrez entseguak egingo dira saretzea indartu eta dantza prestatzeko. Lehenengo entsegua otsailaren 23an, 20:00etan, Ondarretako patioan izango da.

Ekitaldiari amaiera emateko, 12:30ean Mugimendu Feministak deitutako manifestaziora batuko dira parte-hartzaileak, eta Goikoplazatik Zumeara egingo den manifestazioan parte hartuko dute.

Andoaingo Udalak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu afarira, ekitaldi nagusira, manifestaziora eta martxoan zehar antolatutako gainerako jardueretara parte hartzera.

Andoain, 2026ko otsailak 18

El Ayuntamiento de Andoain ha presentado hoy el amplio programa del 8 de marzo

- El programa, del 1 al 14 de marzo, combinará iniciativas ciudadanas y municipales.
- Nerea Uralde ha sido la ganadora del concurso de carteles de esta edición.

El 8 de marzo es una fecha destacada en el calendario y el Ayuntamiento de Andoain organiza cada año una programación específica con motivo del Día Internacional de las Mujeres. En la comparecencia celebrada hoy se ha presentado el programa de este año y se ha dado a conocer la ganadora del concurso de carteles, procediendo a la entrega del premio.

La ganadora del concurso de este año ha sido Nerea Uralde, quien ha recibido hoy su reconocimiento.

Antes de detallar la programación, el Ayuntamiento ha querido subrayar que el 8 de marzo es un día para celebrar los logros alcanzados, pero también para reconocer la lucha feminista que nos ha traído hasta aquí y a las mujeres feministas que la han impulsado. Asimismo, se ha señalado que esta fecha debe servir para concretar los retos pendientes y asumirlos como propios.

En un contexto de aumento de la desigualdad estructural de género, el Ayuntamiento ha manifestado la necesidad de seguir trabajando por unas condiciones de vida dignas y justas, situando la mirada feminista en el centro tanto en la calle como en las instituciones.

La programación del 8 de marzo combina actividades impulsadas por la ciudadanía y propuestas municipales. Se desarrollará del 1 al 14 de marzo. Aunque el programa será buzoneado en los domicilios, se han querido destacar algunas iniciativas.

Por un lado, se ha puesto en valor la cena intercultural de mujeres, que ha permitido generar nuevos espacios, entre ellos el proceso de diseño de la Casa de las Mujeres*. Por tercer año consecutivo, mujeres de diversas culturas de Andoain se reunirán en torno a la comida para seguir tejiendo redes y creando sinergias.

Por otro lado, el domingo 8 de marzo tendrá lugar la iniciativa “Emakumeen irradaka”, organizada por el grupo de trabajo del 8 de marzo, seguida de la manifestación convocada por el Movimiento Feminista.

Cena intercultural

La cena se celebrará el 6 de marzo a las 20:30 horas en la carpa de Goikoplaza. Cada participante deberá llevar su propia comida; allí habrá platos, vasos, cubiertos, servilletas, agua, café y té árabe. Tras la cena, se podrá continuar la velada con música intercultural de DJ SIWANABA. Además, se ofrecerá servicio de guardería previa reserva.

El plazo de inscripción se abrirá el 19 de febrero a las 12:00 horas y permanecerá abierto hasta el 27 de febrero a las 21:00 horas. Durante ese periodo se podrá realizar la inscripción a través del código QR del cartel, por teléfono o por correo electrónico. También se podrá formalizar la inscripción presencialmente en el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento.

Una vez realizada la inscripción, será necesario recoger la pulsera morada, que servirá como entrada y símbolo principal de la cena. Este año, nuevamente, la PULSERA MORADA ha sido elaborada por integrantes del Gazte Lokala. Podrá recogerse del 19 al 27 de febrero, de lunes a viernes por la mañana en el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento, y los martes y jueves de 12:00 a 19:00 en Urigain.

Acto principal

El acto principal tendrá lugar el domingo 8 de marzo a las 12:00 horas en Goikoplaza. En “Emakumeen Irradakan”, una soka-dantza abierta a todas las mujeres del municipio, se representará la conexión y el trabajo en red entre mujeres diversas. La coreografía ha sido creada específicamente para el acto. Se trata de una danza con pasos sencillos y accesible a todas, aunque se realizarán ensayos previos para reforzar el trabajo en red y preparar la actuación. El primer ensayo será el 23 de febrero a las 20:00 horas en el patio de Ondarreta.

Para finalizar, a las 12:30 horas las participantes se sumarán a la manifestación convocada por el Movimiento Feminista, que partirá de Goikoplaza hacia Zumea. El Ayuntamiento de Andoain invita a toda la ciudadanía a participar en la cena, en el acto principal, en la manifestación y en el conjunto de actividades organizadas a lo largo del mes de marzo.

Andoain, 18 de febrero de 2026